

Ingeniaritzarako Oinarrizko Gainazalak



00 Irudia. Bilboko Ingeniaritza Eskolako II.eraikineko eskailera zentralak. Egileen argazkia, 2018.

5. Gainazalen arteko elkarguneen testa

Argibideak

Jarraian aurkezturiko galderai, erantzun anitzeko aukeraketa eskaintzen zaie, emaitza zuzena bakarra izanik.

Erantzunak, dokumentu honen bukaeran aurkituko dituzue.

GAINAZALEN ARTEKO ELKARGUNEEN TESTA

- Gainazal baten sortzaile guztiak bigarren gainazalarekin ebakitzean, nola deritzo elkargune motari?
 - Hozkada
 - Barneraketa
 - Hozkada tangenzial edo ukitzaile sinplea
 - Hozkada tangenzial bikoitza
- Bi gainazalen arteko elkargunea, barneraketa ukitzaile/tangenzial sinplea denean, elkargune lerroa da:
 - Lerro itxi bakarra
 - Euren artean independenteak diren bi lerro itxi
 - Puntu bat amankomunean duten bi lerro itxi
 - Bi puntu amankomunean dituzten bi lerro itxi
- Bi gainazalen arteko elkargunea, hozkadan, honako elkargune-lerroa zehazten du:
 - Lerro itxi bakarra
 - Euren artean independenteak diren bi lerro itxi
 - Puntu bat amankomunean duten bi lerro itxi
 - Bi puntu amankomunean dituzten bi lerro itxi
- Zein forma geometriko zehazten da bi piramideren arteko elkargunean?
 - Poligono itxi bat edo bi
 - Zirkunferentzia bat edo bi
 - Bate do hainbat kurba koniko.
 - Alabeatuak diren bat edo hainbat kurba
- Oro har, zein forma geometriko zehazten da bi zilindroren arteko elkargunean?
 - Poligono itxi bat edo bi
 - Zirkunferentzia bat edo hainbat
 - Kurba koniko bat edo hainbat
 - Alabeatuak diren bat edo hainbat kurba

6. Zein forma geometriko zehazten da bi esferen arteko elkargunean?
- Poligono itxi bat edo bi
 - Zirkunferentzia bat edo hainbat
 - Kurba koniko bat edo hainbat
 - Alabeatuak diren bat edo hainbat kurba
7. Zein forma geometriko zehazten da zilindro baten eta pirámide baten arteko elkargunean?
- Poligono itxi bat edo bi
 - Zirkunferentzia bat edo hainbat
 - Kurba koniko bat edo hainbat
 - Alabeatuak diren bate do hainbat kurba
8. Oro har, zein forma geometriko zehazten da zilindro baten eta esfera baten arteko elkargunean?
- Poligono itxi bat edo bi
 - Zirkunferentzia bat edo hainbat
 - Kurba koniko bat edo hainbat
 - Alabeatuak diren bat edo hainbat kurba
9. Prisma baten eta beste gainazal baten arteko elkargunea zuzena da, baldin eta:
- Prismaren sortzaileak proiektzio planoarekiko paralelo direnean.
 - Prismaren sortzaileak proiektzio planoarekiko elkartzut direnean.
 - Beste gainazalaren sortzaileak proiektzio planoarekiko paralelo direnean.
 - Beste gainazalaren sortzaileak proiektzio planoarekiko elkartzut direnean.
10. Zer dira muga planoak?
- Plano adierazgarriak
 - Gainazalekiko ukitzaile edo tangente diren planoak
 - Gainazalen oinarriak barneratzen dituzten planoak
 - Bi gainazalak ebakitzen dituzten planoen arteko tartea zehazten dutenak

Gainazalen arteko elkarguneen testaren erantzunak

1b, 2c, 3a, 4a, 5d, 6b, 7c, 8d, 9b, 10d.

